

UDAL-BATZARRA 11/02

UDAL-BATZARRAK, 2002ko azaroaren 7an EGINDAKO OHIZKO BILKURARI DAGOKION AKTA

PARTAIDEAK:

ALKATEA:

Jose M^a Sarasola Goenaga

ZINEGOTZIAK:

Miren Maite Aizpurua Etxeberria
Manuel M^a Odriozola Iruetagoiena
Mikel Errazkin Agirrezabala
Rafael Uribarren Axpe
Jose Ignacio Otermin Garmendia
Mikel Zubillaga Galarraga

IDAZKARIA:

Nekane AGIRRESAROBETE XEBERRIA A.

ANOETAko Udaletxean, 2002ko azaroaren 7an, arratsaldeko zazpi terdiak direnean eta aurrez dei egin ondoren, Udal-Batzarra elkartu da, Ohizko Bilkura egin asmoz Jose M^a Sarasola Goenaga alkatearen mahaiburutzapean eta alboan aipatzen diren Zinegotzi guztiek parte hartzen dutelarik. Pedro M^a Peñagarikano eta Jose Martín Uzkudun Zinegotziek ezinetorria adierazi dute. Idazkaria, Nekane Agirresarobe Etxeberria and.

1.- ALKATETZAKO DEKRETUEN BERRI EMATEA, 406 ZENBAKITIK 431 ZENBAKIRA, BIAK BARNE.

EAJ-PNV/EA koalizioko Zinegotzia den Rafael Uribarren jaunak adierazi du, gai-zerrendako puntuei buruzko dokumentazioa beraien bulegoan lehenago uztea eskatu nahi dutela. Astearteko batzordearen ondoren hartu ohi dutela orain arte, baina oraingoan gaur arte ez dutela hartu.

Era berean adierazi du ere, zenbait obra adjudikazioarekin ezustekoa hartu dutela, adibidez “frontoiko aldagelen” proiektuaren erredakzioari buruz Batzorde batean aparejadorearekin adostu zela eta nahiz adjudikazioa legez kanpo egon, diru gutxiengatik pasatzen zenez, aurrera egitea erabaki zela; baina kiroldagiko proiektuaren erredakzioaren adjudikazioak diru-kopuru handia suposatzen duenez, beraien ustez obra hau konkurtsora atera beharrekoa dela. Idazkariak ere txostena egin zuela eta beraien ustetan, adjudikazio hau berrikusi eta konkurtsora atera beharko litzatekeela.

Alkateak erantzun dio horrela egin daitekeen kontsultatuko duela, eta bere ustetan prozedura ondo zegoela.

Uribarren jaunak adierazi du, 414 zenbakidun dekretuari buruzko azalpen batzuk egin nahi dituela jarraian: beraien ustetan bertan adierazitako lan batzuk idazkariak egin beharrekoak direla, adibidez txakurrari buruzko dekretua, azken batean, huskeriak izango direlako, modelo batzuk daudela eta horiek kopiatzea besterik ez litzatekeelako izango. Beste kasu batzuetan berriz ulertzekoa dela, adibidez fabrikara bisita, hor gora-beherak izan direla badakiela.

Alkateak erantzun dio, fabrikako gaiak espediente berezi bat eskatzen duela eta helburua bulegoko lanak arintzea dela.

2.- ABIADURA HANDIKO TRENAREN EDO “Y” PROIEKTUAREN AURKA AURRERA ERAMANDAKO EKINTZA TEKNIKOAK ETA JURIDIKOAK SORTUTAKO GASTUAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

Ikusirik BAKEAZeko Zuzendaritzak Euskal Herrian abiadura handiko trenari buruz egiten ari diren ekintzen berri emanez aurkeztu duen idatzia. Eta Udalen artean fakturatu eta ordaindu beharreko dirukopuruak adierazten direlarik bertan.

Visto el escrito presentado por la Dirección de BAKEAZ en el que dan cuenta de las acciones legales que vienen realizando respecto al tren de alta velocidad para el País Vasco. Así mismo establecen las cantidades pendientes de facturar y abonar por los distintos Ayuntamientos.

Alkate jaunak Manu Odriozola Zinegotziari eman dio hitza.

Odriozola jaunak partaideei azaldu die, jadanik denek dakiten modura, AHT GELDITU ELKARLANean parte hartzen ari direla Udal bezala; audientzia nazionalen eta autonomi erkidegoko epaitegiaren aurrean helegiteak aurkezten ari direla. Audientziari dagokion demandaren aurkezpenaren dirukopurua zazpi milioikoa dela eta parte hartu duten herrien artean banaturik agertzen dela zerrendan, Anoetako Udalari dagokion kopurua 1532,43 eurokoa delarik. Faktura egun batetik bestera pasako duela BAKEAZ Elkarteak, eta ordainketa hori onartzea proposatzen dela.

Rafael Uribarren EAJ-PNV/EA koalizioko bozeramaileak adierazi du, bere taldea proiektu hau egitearen alde dagoela eta beraien botua ezezkoa izango dela.

Jarraian alkate jaunak botutara jarri du 1532,43 euroko gastuaren ordainketaren onespena eta hona hemen bozketaren emaitza:

Aldeko botu-kopurua: LAU
Aurkako botu-kopurua: HIRU
Abstentzioak: BATERE

Beraz, bozketaren emaitzaren arabera, honakoa erabaki da:

Lehenengo: Onestea 1532,43 eurotako gastua, Audientzia Nazionalaren aurrean jarritako demanda dela medio.

Bigarrenengo: Faktura aurkeztu ondoren ordainketa BAKEAZ ELKARTEaren alde egin dadin agintzea, 1.0000.226.110.00.99.2002 partidaren kontura kontabilizatuz.

A continuación el Sr. Alcalde somete a votación la aprobación del gasto de 1532,43 euros, obteniendo el siguiente resultado:

Votos a favor: CUATRO
Votos en contra: TRES
Abstenciones: NINGUNA

Por lo que a la vista del resultado obtenido en la votación, se acuerda:

Primero: Aprobar el gasto de 1532,43 euros en concepto de formalización de la demanda ante la Audiencia Nacional.

Segundo: Ordenar el pago a favor de BAKEAZ ELKARTEA previa presentación de factura, contabilizando el mismo con cargo a la partida 1.0000.226.110.00.99.2002.

3.- GALDE-ERREGUAK

Galde-erreguen tartean alkate jaunak partaide guztiei jakinarazi die, euskararen jarraipen batzordeak erabaki zuen bezala idazkaria euskara ikastarora joan ahal izateko ordezkoa bilatzen saiatu dela eta jadanik aurkitu dutela bat. Ordezkoa Nerea Etxebarria dela, lizentziatua, 4. hizkuntza eskakizuna gainditua duena, udaletxeetan aholkulari lanetan jadanik ibilitakoa, zenbait oposaketetarako zerrendatan dagoena, egokia ikusi dutela eta funtzionatzeko moduko pertsona. Astelehenetik aurrera lanean hastekotan dela, eta Nekane Idazkaria euskaltegira joango dela.

Rafael Uribarren Zinegotzi jaunak adierazi du, beraien ustez momentu hau ez dela oso ona titularraren faltan geratzeko.

Alkateak erantzun dio, urte osoa antzekoa dela zentzu horretan.

Uribarren jaunak adierazi dio, Hazienda Batzorde bat eskatzeko asmotan zeudela, kontuak nola dauden ikusteko, zein egoeratan gauden, etabar; eta idazkari titularrarekin egitea nahiko luketela.

Alkateak erantzun dio Hazienda Batzordea egiteko asmoa bazeukala berak ere. Periko eta bera asteazken eta ostegunetan ibiltzen direla ondoen. Aste honetan ez bada, datorren astean ziur antolatuko duela. Idazkariarekin ere zenbait gai hitzeginda dituela jadanik.

Uribarren jaunak galdetu du, azaroan gaudenez, ordenantzak ikuitzeko asmorik ba ote dagoen.

Alkateak erantzun dio ikusiko duela epez nola gabiltzan baina printzipioz ohiz kanpoko pleno bat egin beharko litzatekeela azaroan, hazienda batzorderako proposamen bat ematen saiatuko dela, eta batzorde hori aurreratzea beharrezkoa bada, deituko duela.

Eta beste aztergairik ezean alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du iluntzeko zortzirak hamar minutu gutxiago direnean; guzti honetaz, ni idazkariak, fede ematen dudalarik.